

Estatu berri bat sortuko balitz Estatu-kide batetik bereiziz, Europar Batasunaren kide izateko prozesua nolakoa litzateke? Batasunatik kanpo geratuko litzateke eta kanpotik sartzeko negoziatu beharko luke? ala irten gabe, kide izatearen baldintzak barrutik negoziatuko al lituzke? Hori da galdera, eta gure ustez ez dago erantzun juridiko garbirik, ez aldeko ezta kontrako ere.

Giltza-Hitzak: Barneko zabalkundea. Europar Batasunaren kide izateko. EB Tratatuko 48, 49 eta 50 artikulatuak.

Si se formara un nuevo estado diferenciado del Estado miembro al que pertenecía, ¿cómo sería el proceso para convertirlo en miembro de la Unión Europea? ¿Quedaría fuera de la Unión y tendría que negociar desde fuera?, o ¿podría negociar las condiciones desde dentro, sin salir de la misma? Esa es la pregunta, y pensamos que no existe una respuesta jurídica clara, ni a favor ni en contra.

Palabras Clave: Ampliación interna. Miembros de la Unión Europea. Artículos 48, 49 y 59 del Tratado de la UE.

Si un nouvel état a été formé différencié de l'état membre dont il faisait partie, comment il serait le processus pour le rendre en membre de l'Union Européenne? Resterait-il en dehors de l'Union et devrait négocier de l'extérieur?, ou pourrait-il négocier les conditions de l'intérieur, sans quitter l'Union? Telle est la question, et nous pensons qu'il n'y a pas de réponse juridique claire, que ce soit pour ou contre.

Mots-Clés : Extension interne. Les membres de l'Union Européenne. Articles 48, 49 et 59 du Traité UE.

Nazio-Erregio izatetik Estatukide izatera

Barneko zabalkuntza Europar Batasunean

(From Nation-Regions to Member States:
internal expansion of the European Union)

Bengoetxea, Joxerramon

ehuGune. UPV/EHU. Zuzenbide Fak. Ibaetako Campusa
Manuel Lardizabal Ib., 2. 20018 Donostia
joxerramon.bengoetxea@ehu.es

BIBLID [ISBN: 978-84-8419-277-0 (2016); 104-121]

1. Sarrera

Eguerdi on denoi, eta eskerrik asko antolatzailei gonbite honengatik. Nahiz eta topaketa hauen batzorde zientifikoaren kide izan, niretzako ohore handia da hemen parte hartu ahal izatea, ezagun eta lagun ditudan kide askorekin, Drew Scott, Patricia Popelier besteak beste. Nire parte-hartzea apur bat desberdina izango da, oraingo honetan, zeren Eskoziako, Suitzako edo Belgiako lurralde eraketa bereziak ezagutu eta gero, Europar Batsaunetik ematen den konstituzio mailako erantzuna aztertu beharra dago. Eskoziaren kasuan planteiatu egin zen bereziki, alegia zer gertatuko litzateke Europar Batasunarekiko Eskoziak Erresuma Batutik banatuko balitz? Gai berezi hau jorratuko dut, “barneko zabalkundea”ren gaia bezala eza-gutzen dena, *ampliación interna* edo *internal enlargement* deritzona.

Gaiaren planteamendua une historiko berezi batean egiten dugu. Europa jauregian autogobernuari buruz ospatzen ari diren Topaketa zientifiko hauek, 2016ko apirilean egiten ari dira, alegia Eskoziako independentziari buruzko erreferenduma, 2014ko irailekoa, burutu eta gero. Emaizta ezagutzen dugu: ezetza nagusitu zen ia hamar puntuengatik (%55a pasatxo independentziaren aurka, ia %45a alde, beraz auzia pikatuta!). Batek pentsa zezakeen gaia erabat baldinezko edo hipotetiko hutsa dela jadanik. Baina gauzak ez daude hain argi. Eztabaida bejar bada ez da itxiztat jo behar. 2016ko ekainaren 23an beste erreferendum garrantzitsu bat dator: Erresuma Batuaren mailako erreferenduma, Brexit deritzona, Europar Batasunetik irten ala ez irtetzeko. Gasteizko Topaketa hauek bi erreferendumen artean ospatu dira. Idazlan honen amaieran Brexit erreferendumaren emaitzak (%52k brexitarren alde, %48 remain alde) izan ditzakeen ondoretaz jardungo gara zeren egoera erabat aldatzen da. Edozein kasutan Eskoziar Independence Referendumaren (2014-09-18) eta Brexit Referendumaren (2016-06-23) tarte horretan barneko zabalkundearen galdera balizko maila batera igaro zen: Eskoziak ez zuen independentziaren bidea hartuko, Erresuma Batuaren baitan jarraituko zuen eta beraz Europar Batasunarekiko kidetza britaniar estatukidearen bitartez bermatuta zeukan. Brexit eta gero gauzak aldatzen dira, jakina, testu honen

amaieran azalduko dugun bezala. Baina itzul gaitezen 2014.eko Irailaren 18aren aurreko kanpaina –Independence Referendum Campaign– garaietara.

Independentzia erreferendumaren kanpainian zehar behin eta berriz entzun genuen barneko zabalkundearen inguruko oso iritzi kontrajarriak. Gai nagusietako bat izan zen, nahiko erabakiorra, bakarra ez izan arren. Independentzia aldarrikatzen zutenek defendatzen zuten Eskoziak estatukide berri bat sortzeko prozesua, urte t'erdiko negoziazio baten ondoren, ia automatiko eta samurra izango zela: estatukide berri bat sortuko zela, Scotland, eta beste estatukideek onartu beharko luketela. Prozesu azkar eta samur hau nola gauza zitekeen, ordea, ez zekien inork, Tratatuetan ez baitago bide hau argitzen edo errazten duen inolako araurik. Independentziaren aurkariak aldiz, beste argumentuan artean, zera argitzen zuten: Eskoziak Europar Batasunean jarraitzea bermatzen zuen soluzio eztabaida ezin bakarra Erresuma Batuko kide zela, eta Erresuma Batutik irtetzeak seguraski Europar Batasunetik ere irtetzea ekarriko lukela, gero kanpotik berriz kide zeko prozesu osoari ekin beharko litzaiokeelarik. Beraz hasieran nahiko garbi ikusten dugu nola zeuden posturak baina Brexiten emaitzak beste mehatsu guttiz desberdina ekarri du.

Eskoziak Erresuma Batuan eta Europar Batasunean (1973-2019)

versus

Eskoziak Erresuma Batutik eta Europar Batasunetik irtenda (-1707)

=

Eskoziak Erresuma Batuan baina Europar Batasunetik at (1707-1973 eta 2019-)

Eta azken aukera hau da, inolako zalantzarik gabe, Eskoziar gutxienez nahi zutena. Parentesien artean eskoziak historian zehar izan duen statusa adierazten da. Lehenengoa, “Scotland in the UK and the EU” orain arteko status quo izan da, baina aldatzera doana ezinbestean. Bigarrena, Independent Scotland zaharrena da. Jakina Europar Batasunetik ez zegoen. Hirugarrena “Union Scotland” izan daiteke etorkizuneko statusa, historikoa ere badena. Bi erreferendumen paradoxa honakoa da: prozesua hasi baino lehen gehiengoa nahiko pozik egon da zeukan statusarekin “Scotland in the UK and the EU”, eta prozesua amaitzen denean gehiengoa ez da batere pozik egongo status berriarekin: “Scotland in the UK outwith the EU”. Oraindik ez dakigu zein izango den Brexit negoziaketaren emaitza, alegia Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen arteko negoziaketaren emaitza, gai hau amaierako uzten dugu, baina Brexit is Brexit is Brexit is Brexit mantrari jarraituz gero, eta bigarren Independence Referendum bat ez badago Eskozian, badirudi Eskoziak Europar Batasunetik kanpo egon daitekeela 2019rako: inork gutxi nahi zuena.

2. Barneko zabalkundearen teoria

Badakigu, jakin, zabalkundea zeinen garrantzitsua den Europar integrazio prozesuan. Ia ia galdera existentziala sortzen du. Bi dinamika nagusi topatzen ditugu europar integrazio prozesuan: kide zaren aldetik zabaldu, handitu, eta konpromisuen aldetik sakondu. Tentsio batean daude biak: asko zabaltzen bada orduan sa-

kontzea zailagoa izango da, aldiz dauden kideak jadanik euren ordenamendua armonizatu, amankomuneko *acquis* edo ondarea egokitu dutenean, orduan konpromiso berriak hartu ahal izango dituzte, batasunean edo integrazioan sakonduz, merkatu komunetik, ekonomia batasunera, moneta batasunera, zerga armonizaziora, eta behar bada azken finean batasun politikora... Zabalkundearen dimentsioak gutxienean integrazioa lortuta edo gauzatuta edukitzea eskatzen du, gutxienean artean elkarrekin ezarritako helburuak gauzatzea errezagoa izango delako askoren artean egitea baino.

Kide berriek helburuak ontzat jo behar dituzte, helburu guztiak eta ez batzuk bakarrik. Negoziatzen duten bitartean, kapituluz kapitulu, atalez atal joan behar dira euren ordenamendu juridikoa egokitzen Europar Batasuneko arauak bereak ere eginez. Jo dezagun arrantzaren edo enpresa publikoen atala. Kide nahi den estatuak kuotak, erabakiak, itsasontzien matrikulazioak egokitu beharko ditu, espeziez espezie erabakiak hartzeko gaitasuna Europar Batasunari aitortuz. Enpresa publikoak direnean beste estatu kideetako enpresen kokapena onartu beharko ditu baldintza berdinetan, laguntzak bereizkeririk gabe kudeatuz. Horrela kapitulu guztietan. Oso prozesu luzeak eta korapilotsuak izaten dira. Helburuak onartuz gero, amankomuneko *acquis* edo ondare hori nola berenganatuko duten adostu behar dute, eta horretarako trantsizio epe bat jartzen zaie, zeinean mugimendu askatasun batzuek edo eskubide berezi batzuk gauzatzen doazen. Hau guztia “barneko zabalkundea” delakoarekin ez da beharrezkoa, egina dago, *acquis* komuna lortua baitago.

Lehenengo autorea barneko zabalkundearen gai honetaz teoria bat landu zuena Neil MacCormick, nire Edinburgeko maixu maitatua, izan zen, azken milurtekoaren amaieran eta bere ideia holakoa zen: Eskoziako sezesioa kontestu demokratiko batean gauzatuko balitz, alegia Eskozia Erresuma Batutik bananduko balitz, eta beraz, printzipioz, estatu independente berri bat sortuko balu, zer gertatuko ote zen bere Europar Batasunarekiko partaidetzarekin? Suposatuko al luke horrek berehala bere kabuz irten egin beharko zela Europar erakundeetatik, ala beste kideek kanpora botako zutela, ala jarraitu ahal izango zuen modu automatikoan Europar erakundeen barruan beste kide berri bat bezala, estatu kide berri bat izaten? Azken erantzun hau proposatu zuen MacCormick-ek Europar Batasunaren edo Commonwealth, berak nahiago zuen moduan, aldeko postura nabaria eginaz. Horrela planteatu zuen berak: zabalkundea litzateke estaturikide berri bat egongo zelako, baina barnekoa litzateke ez litzateke zabaleran hedakuntzarik izango ezta biztanlegoen hazkunderik ere. Estatuaren teoria lantzen denean hiru izari edo dimentsiori begiratzen ohi zaio: lurraldea edo jurisdikzioa (estatuaren muga barruan), biztanlegoa (hiritargoa) eta gobernatze erakundeak (eraturitako boterea). Hiru elementu hauek estatu bereko arauak finkatzen dute eta ez dago beste hiru garren estaturik elementu hauek arautzen dituenik.

Europar Batasunean “ohiko” zabalkundea edo zabalkunde arrunta gertatzen denean, azaldu berri dugun bezala, ordura arte kide izan ez den estatu independente batek Europar Batasuneko erakundeekin kidegata, eta kidegataren baldintza zehatzak, negoziatzen ditu, adosten ditu, sinatzen ditu eta berresten ditu. Hau egin

behar du bai kide berriak eta baita gainontzeko estatukide guztiek ere. Erresuma Batua, Irlanda, Danimarka (1973), Grezia (1980), Portugal eta Espainia (1986) horrela sartu ziren: kide ez zena kidetu egiten zen eta kide berri bat sortzen zen, Europar Komunitateak zabaltzen zirelarik. 1995. urtean antzeko zerbait gertatuko zen, Suedia, Finlandia eta Austria kidetu zirenean, baina kidetu ziren Europar Batasuna hori konplexuagoa zen ordurako: Europar Batasuna informalki sortu berria, hiru zutabeetan oinarrituta: zutabe nagusian Europar Komunitateak, beste zutabe batean kanpo harremanen elkarlan politikoa, eta hirugarrenean barneko zein justizia gaietako elkarlana.

MacCormickek planteatu zuen moduan eta garaian, azterketa juridiko gutxi zegoen “barneko zabalkundearen” gaiaren inguruan. Ezagutzen zen prozesu bakarra zabalkunde arrunta zen. Inork gutxi landutako gaia zen. Euskal Herrian eta Katalunian alderdi politiko batzuek antzeko posturak defenditzen zituzten, “herrietako Europa” lelopean. Behar bada zabalkunde deitzeak fenomenologia berezi batetarantz abiatzen gaitu, alegia estatu-kide berriak sartzeko prozesuak, Europar integrazio prozesuaren funtsezko dinamika bat dena, baina Eskozia, edo Euskadi eta Kataluniako kasu hauetan problematika desberdina legoke: baziren Europar Komunitateen kideak, zeharka eta errebotean. Zergatik esan Europar Batasuna zabaltzen dela? Ba, formalki kide berri bat dagoelako, baina areagotze bat da hori, ugaltze bat, ez da benetan zabaltzen orain arte kide izan ez diren herriak besarkatzeko. Ez lurralde-hedapenean, ez biztanlegoan edo hiritargoan, ez ordenamendu juridikoetan, ez erakundeetan ez dago benetako estatu berririk. Behar bada zabalkunde terminoak ez du gehiegi laguntzen, arreta behar ez den prozesuan jartzen duelako: sartzeko negoziaketa konplexu horietan hain zuzen ere. Baina Europear integrazioaren dinamikan zabalkunde hain funtsezko izanda MacCormick-ek termino hori aukeratu zuen automatismoa adierazi nahian, kide berria jadanik barruan zegoen, eta ez luke zentzu gehiegirik izango irtenarazterik berriro sartuko balitz, askoz egokiago litzateke barrutik bertatik kide horren baldintza formal berriak nolakoak izango ziren negoziatzea: zenbat ordezkari eta zenbat boz erakunde komunetan adibidez?

MacCormickek berak teoria politiko eta filosofiko batean kokatzen zuen soluzio hori, hain zuzen ere, demokratizazio eskaera batekin, Europar Batasuneko erakunde, eta estatuko, eta erregioetako erakunde guztietan demokraziaren printzipioa dago eta onartu behar da gehiengoak erabaltzen duena, herri borondatea alegia behin beste gainontzekoen eta gutxiengotuen eskubideak bermatzen direnean. Europar Batasunean kide den estatu baten errejio batean prozesu bat suertatzen bada estatu horretatik bereizteko eta prozesu hori baketsu eta adostua bada, beste estatukideek prozesu hori errespetatu egin beharko lukete, eta sortzen den estatuari egokipen bat bilatu beharko liokete beste gainontzekoen artean. Demokraziaren printzipioak hori eskatu luke, eta estatuen subirautzaren printzipioak aldiz negoziatzea ekarriko luke, status quo berri bat adozteari begira. Demokrazia beraz, nahitaezkoa izan arren, ez da nahikoa, beste printzipio garrantzitsu batekin orekatu behar da, gainontzeko kideen ikuspegia eta errespetoa ere dakarrena. MacCormicken ideietatik beste kontzeptu fun-

tsezko bat ateratzen da, gure azterketa honetan erabiliko duguna, interdependentziarena, kideak elkarrengandik independente eta aldi berean dependiente dira, horregatik eta horretarako kidetzen dira, elkar konpartitzeko. Europar Batasunaren izaera politikoan eta bere zilegizkotasunaren iturrian funtzionalismoa dago, helburuak lortzeari begira dagoela sistema osoa eta sistemaren osagai guztiak helburu horiek betetzeko asmoan interpretatzen direla. Interdependentziaren ideia funtzionalismoarekin bat dator, baina baita ere demokraziarekin, herri borondatearekin eta eskubideekin. Interdependentzia hau oso produktiboa da, oso kreatiboa da, baketsua da, baina kideen gogoia ere onartu behar du, errespetatu, ezin du herrien borondate demokratikoa gutxietsi. Esan daiteke interdependentzia bizikidetzeta edo elkarbizitzaren parekoa dela, bai gizarte baten barruan eta bai gizarteen edo herrien artean. Bere lehenengo helburua elkarren artean erlazio sarea osatu eta mententzea, konfidantzaren gainean eraikia, herri bakoitzak besteen aurrean izaera propioa dauka, bere buruaren jabe baina aldi berean besteekiko elkartasuna, beharra. Merkatuan bezala, eragileak oreka batean dandean elkarren beharra daukate eta elkarri laguntzen diote, baina eragile bat modu agerian gailentzen bada kokapen nagusia hartuz, jatorrizko oreka desagertzen da eta abusuak eta zapalkuntzak agertu daitezke, interdependentzia aldatu egiten da gutxieneko berdintasuna galtzen denean.

Erresuma Batua Europar Batasunetik irtetzeko asmoa eta asmo hori betetzeko erabakiak interdependentziaren printzipioari gailentzen zaio. Baina behin irteera gauzatuta, interdependentzia berri batean sartu beharko da, eta formula egokia negoziatu beharko du interdependentziako beste bazkideekin, guztien artean adostu beharko dute. Berdin Eskoziako independentzia gauzatuko balitz, erabakia errespetatu bai baina guztion artean interdependentzia sareak berriz definitu beharra ez zen desagertuko. Eta negoziaketa horiek leialtasun espiritu batean gauzatu behar dira.

3. Leialtasun federala

Demokraziaren eskakizunak suposatu beharko luke demokratikoki alderdie interesdunen artean adosten dena errespetatu beharra dagoela, dela erreferendum baten bitartez, dela beste konstituzio prozedura bat jarraituz, edo konstituzioan aurrikusten ez den beste erabakiren bat, adostua bada. Hau nazio baten baitan gerta daiteke, dela erregio-nazio batean dela estatu-nazio batean, dela erregioen edota estatuen artean. Erregio-nazio edo erregio nazionalaren ideia estatu-nazioa edo estatu nazionalaren paralelismoan erabiltzen dugu, baina erregio hura, estatua bezala anitza izan daiteke nazio ikuspegitik, nazio nortasun edo nazio identitate desberdinak egon daitezkelako horien baitan, bai erregioan bai estatuan. Demokratikoki adosten den prozedura edo erabakia hartzeko eskema onartu egin beharko litzateke beraz. Herri-borondate edo herri subirautza alde aurretik adostu den esparru batean gauzatzea da gakoa. Eta adosten baldin bada status politikori buruz galdetuko edo kontsultatuko dela, ba sortzen den emaitza onartu egin be-

harko litzateke, dela “independentzia” –subirautza ikuspegi formaletik, nazioarteko nortasuna eta barnera begira autogobernua– eta estatu berri baten sorrera dela beste estatu baten kideatza, dela beste formularen bat.

Leialtasun federalaren ikuspegiak funtsezkoa da prozesu hori negoziatua eta kontsentsatua eta adostua izatea, prozedura demokratikoak jarraitzen direla, eta adostasuna dagoela estatuarekin, estatu kidearekin.

Europar Batasuna demokraziaren gainean oinarritzen da alde batetik, eta bestetik estatukideen konstituzio-berezitasuna, bai estatu arloan bai udal zein errejio arloko autonomia ere. Europar Batasunak gainera, botere moral gisa bere burua munduaren aurrean aurkezten du, eta ez bakarrik merkatu eraginkor gisa edo interdependentzien kudeatzaile eraginkorra. Demokrazia munduan zehar aideratzen badu, bere baitan ere errespetatu beharko du, bestela erizpide bikoi-tzak izango ditu (double standards edo doble moral). Zentzu horretan Ebko erakundeak, edo euren buruzagiak, ez dira beti leialak izaten estatukideetako demokraziarekiko.

Beharrezkoa da estatukideek beste estatukideen erabaki demokratikoak errespetatzea eta baita Europar Batasuneko erabaki komunak ere, horiek ez oztopatuz, adibidez gutxiengoan aurkitzen direnean. Baina Europar Batasuneko erakundeen ere errespetatu behar dituzte estatukideen erabaki demokratikoak, eta estatuen egitura politikoa, zentralizatua edo federatua izan. Horra leialtasun federala (Alemaniako doktrinatik datorren kontzeptua berau, *Bundestreu*). Adibide bezala Komisioko presidentea den Jean-Claude Junckerrek urriaren amaieran egindako adierazpenak Belgiako konstituzio eraketari buruz. Europar Batasunaren eta Kanadaren arteko merkataritza eta ekonomiaren akordio orokorra edo CETA delakoaren sinaduraren biharamunean Junckerrek esan du Belgiak bere konstituzio-eraentzari buruz gogeta kritiko bat egin beharko lukeela esan duenean. Izan ere Walloniako parlamentuak uko egin dio hainbat asteetan akordio hori berresteari eta berrespen horren ezean Belgiak ezin zion akordioari berrespena eman, Belgiaren egitura federalgatik erregioek nazioarteko tratuen gaineko eskuduntza dutelako eta akordio hori izaera mistoa edo nahastua dauka non eskuduntzak Europar Batasunaren eta estatukideen artean banatzen diren. Junckerrek erakutsi du estatuen barneko gaietan, konstituzio gaietan, sartzeko joera bat, eta hori eginez estatukideen izaera konstituzionala, EB Tratatuak bere 4. artikuluan jasotzen duen printzipioari muzin egin dio. Walloniako parlamentuaren erabaki demokratikoa ere ez du aintzakotu. Eskoziaren independentzia erreferendumaren aurreran ere aurreko Komisioko presidentea, Manuel Durao Barrosok ere esana zeukan eskozia independente batek ezin izango zuela Europar Batasunean jarraitu, hainbat estatukidek, espainiakoa kasu, ukatuko ziotelako aukera hori.

Joera horiek beraz kezagarri dira oso, eta adierazten dute ez demokraziaren ezta estatukideen konstituzio-nortasunaren printzipioa, nahiz eta Tratatuak modu solemnean jaso, ez direla egitan aintzakotzen. Horien gainean interdependentziaren printzipioa nagusitzen da, Komisiok interpretatzen duen era funtzionalean. Komisioren “iruditegi” edo imajinarioan gidalero bakarra balego bezala:

batasun ekonomikoa eta merkatu bateratua gauzatzea, hori da europar integrazioaren *leitmotiv* Komisioarentzat¹.

Europar Batasunak bere hiritarren eskubideak eta interesak defenditzen ditu, demokraziarekin batera eta merkatu bateratuaren helburuak –barne merkatua, eta merkatu bakarraren ideia– eta batasun ekonomiaren helburua garrantzitsu izan arren, ezin dira helburu bakarrak izan. Ikusi egin beharko da pertsonen eskubideak, giza eskubideak, lerro gorri gisa eragin dezaketen merkatuko askatasunen aurrean, adibidez *Omega* deritzon epaian, edo *Schmidberger* epaian, gertatu zen bezala. Baina merkatu eskubideak edo funtsezko askatasunak erabakiorrak baldin badira, orduan operatzaile ekonomikoen merkatu askatasunak funtsezkoak izango dira eta Komisioak horiek ere defenditu beharko ditu, beste ezerren gainean.

4. Barneko zabalkundearen eskenatokiak

Beraz, sar gaitzezen, orduan, barneko zabalkundearen egoeran. Zer suposatuko luke barneko zabalkundeak? Ikusi dugun bezala badira konstituzio printzipioak errespetatu behar direnak, denon eskutik: demokrazia, interdependentzia formula funtzionalak, Batasuneko hiritartasun eskubideak, merkatuko mugimendu askatasunak, batasunarekiko leialtasuna, estatukideen konstituzio-izaera, errejio autonomia barne, eta Batasunaren helburu nagusiak, ekonomia eta monetar batasuna.

Printzipio hauek kontutan izanda, barneko zabalkuntza edo zabalkundearen galdera erantzuteko EBko tratatuek aurrirakusten dutena, edo hobeto esanda, aurrirakusten ez dutena, aztertu behar da. Independentzia eta estatu berri bat sortzea erabakiko balitz orduan, zer gertatzen da kidezarekin? Lau eszenatoki edo erantzun bereiz ditzakegu metafora teologiko-kosmogoniko bat erabiliz.

Lehenengo aukera (old IN – new IN), desiragarriena, zerua litzateke: independentzia lortu eta Batasunean egon nahi duen herriarentzat, Europar Batasunean automatikoki geratzea, irtetzeko beharrik gabe, hantxe egon, eta nolabait kide berriaren baldintzak barrutik negoziatzea, trantsizio epe baten barruan, eta epe horren amaieran ez bada akordiorik lortu modu proportzionalan ezarri kide berriaren ordezkari baldintzak eta bestelako ekarpenak. Hau litzateke aukerarik errazena, ez bakarrik desiragarria.

Bigarren aukera (old IN – (OUT) – new IN) garbitokia izango litzateke, purgatorio motza: estatu berriaren kide izatearen baldintzak modu *ad hoc*, edo berezi batean negoziatzea, baina formalki irtetzera behartu gabe edo jakinda azkenean barruan sartuko dela. Beste modu batean esanda, beste estatukideen onarpen inplizituarekin irten eta sartzea: estatu berria ordura arte barruan baldin bazegoen

1. Testu honetan saiatu naiz ahozko generoari atxikitzen, eta horregatik erreferentzia bibliografikoak dosifikatu egin ditut, baina zilegi begit gutxienez bi aipu: Neil McCormick-en lanari dagokionez *Questioning Sovereignty* bere 1999ko liburua, Oxforden argitaratua, eta berri berria Turkuler Isiksel, *Europe's Functional Constitution*, Oxforden ere bai, 2016.

ezin da orain oztoporik jarri barruan ez jarraitzeko, leialtasunaren aurkakoa litzateke. Baina formalki irten beharko zen kide izatearen baldintza berriak adostu bitartean purgatorioan legoke estatu berria.

Hirugarren eskenatokia (old IN – OUT – Negotiation – Ratifications – IN) linboarena edo behar bada garbitoki luzearena litzateke: kide berria irten araztea eta gero berriz sartzen uztea, sartzeko eskaera formala egin eta gero, eta kide guztiek onartzen badute, inoiz barruan egon izan ezbalitz bezala. Hau oso aukera konplikatu da, interdependentzia funtzionalarekin eta erabaki demokratikoa adostuarekin bat ez datorrena.

Laugarren eta azken aukera (old IN – new OUT 4ever) infernua litzateke: irtetzera behartu eta inoiz ez berriro sartu, alegia, baztertua izatea betirako. Estaturikide batetik banatzera ausartuz gero betirako amildegira joatea litzateke, bekatu mortala garbiezina egin balitz bezala. Nire ustez aukera hau guztiz dator demokraziaren, leialtasunaren eta interdependentzia funtzionala printzipioen kontra.

Honen guziaren aurrean, ikus dezagun zer aurreikusten duten tratatuek, eta horretarako metodologia iuspositibista jarraituko dugu: abiatuko gara Tratatu guztietan estaturikide baten baitako erregio baten sezesioa suertatzen bada estaturikide horrekin adostua, Tratatuak zer erantzun juridiko-konstituzionala aurrizkusten duten. Erantzuna oso erraza da, ez dago ezer tratatuetan hipotesi hau, nolabait, arautzen duenik, ez dago. Deus ez.

5. Tratatuaren hutsunea?

Ezerezaren aurrean bi aukera daukagu: bat, pentsatzea akats bat dela eta hutsunea dagoela, eta bi, pentsatzea ez dela ezer akatsdun eta Tratatuak ez dutela egoera horretan zertan erantzunik eman beharrik. Bigarren kasu honetan erabaki politikoei bidea daukate, baina ez dira juridikoak izango. Lehenengo kasurako juristik hutsune juridikoa, *laguna jurídica*, edo *legal gap* deitzen duguna, tresna edo metodologia bat badago hutsunea betetzeko, edo konpontzeko, juristik horror vacuis bat dugunez ezin izaten baitugu hutsuneen kasuarekin biziraun.

Nola betetzen dira zuzenbidean normalean, ohikoan hutsuneak? Ba bi metodo nagusi daukagu zuzenbidean hutsuneak betetzeko. Bati deitzen diogu autobetekuntza eta besteari heterobetekuntza. Berezko betekuntzan zuzenbideak berak, ordenamendu juridikoak berak dauzkan arauak erabiltzen dira, honi esaten zaio bere burua betetzea. Analogia eta interpretazioa, eta printzipio orokorrak dira erabiltzen diren tresnak barrutik betetzeko hutsune hori. Kanpobetekuntzarekin, beste metodoa, kanpora begiratzen dugu, beste sistemaren batean arau normatiboetara begiratu ia hortik irizpide, kriteriorik edo pistarik aurkitzen dugun. Beste sistemetako arauetatik inportatzen ditugu arauak, dela zuzenbidezko beste sistema bat dela beste sistema araukor bat filosofia praktikoan kokatzen dena.

Analogia izaten da lehenengo saioa. Begiratzen dugun ia Tratatuaren bada- goen antzeko egoera, nahiz eta berdin berdina ez izan, arautzen duen xedapenik dagoen. Analogiatik, nolabait, erabili, edo gertuen dauden xedapen juridikoak tra-

tatuetan gaia jorratzen dutenak? Gure gaia, gogoratu dezagun honakoa da: estatukide baten erregio batek estatukidearekin adostu du prozesu bat statusari erabakitzeke eta banatzea erabakitzen du, eta gakoa da estatukidetik irtetzen denean zer gertatzen den ordura arteko Europar Batasunaren kidezarekin. Topatuko bagenu antzeko gakoa arautzen duen xedapen bat, azken honek aurrakusten duen erantzun juridikoa gure gakoari aplika geniozaioke. Ikus dezagun antzeko gakorik aurrakusten den Tratatuetan. Ohar batekin jakina: antzekotasunaz erabakitzea arbitrarioa dela, ez da zerbait neutrala.

6. Hutsunea betetzeko aukerak, analogia

Badira hiru artikulua, danak EBko Tratatuan: 48. artikulua Tratatuak aldatzeko prozedurei buruzkoa (IN \leftrightarrow IN, Barren-barrenetik aldatzen dira), 49. artikulua, hain zuzen ere, kidetza berrietarako (OUT \rightarrow IN ; kanpotik barrura), eta 50. artikulua Europar Batasunetik irteteko prozedura (IN \rightarrow OUT, barrutik kanpora). Aztertu egin beharko genuke egoera horiek nahiko antzekoak diren analogia aplikatu ahal izateko.

Tratatuak aldatzeko prozedura oso egokia da baina ez digu ezer konpontzen. Hutsunearen aurrean badakigu Tratatuak behar bada aldatu beharko genituzkela hutsune gehiagorik ez egoteko, baina ez dakigu zein zentzutan aldatu beharko genituzkeen. Xedapenak esaten digu nola aldatzen diren Tratatuaren xedapenak baina ez digu ezer esaten zein arau berri sartu beharko genukeen Tratatuetan. EB Tratatu 48. artikulua aurrakusten du nola aldatzen diren tratatuak. Garbi dago Eskozia, esate-baterako, edo beste erregio nazio batek hartuko balu estatus berri bat estatua bilakatuz, ba aldatu beharko lirakekeela gutxienez tratatuak aurrakusteko kide berriaren partaidetza, zenbat ordezkari izango zituen Parlamentuan, esate-baterako, zer gertatuko litzatekeen bere hizkuntza ofizialarekin Europar Batasunaren barnean, izango ote zuen komisario bat, zenbat boto emango ote zitzaizkion Kontseiluan, eta hainbat eta hainbat arlo aldatu beharko lirakekeenak tratatuan.

Hemen prozedura ordinarria eta berezia, alegia politiken aldaketa, aipatu ditu Patricia Popelierrek aldatzen diren gaien arabera. Funtsezko gaiak aldatzeko ohiko prozedura dago, gobernuen arteko konferentziaren bidez. Eta estatukide baten erregio batek kidetza berezkoa nahiko balu, ba kasu honetarako derrigorrezkoa izango litzateke ohiko prozesua, ezen aldatzen ari den tratatuaren zatia ez da politiken zatia, EB-ren Funtzionamenduaren Tratatuaren seigarren zatia. Beharrezkoa litzateke prozesu konplexu hori guztia jarraitzea eta baita ere, jakina, estatu guztien berrespena edo erratifikazioa. Horrelako prozesu bat beharrezkoa izango litzateke puntu batean, aldatu egin beharko lirakeke, edozein kasutan, tratatua, hori, uste dut inork ez duela zalantzan jartzen. Beraz 48. artikulua ez digu ezertarako balio; oraindik ez dugu ezta erabaki ere Tratatuak aldatu behar ditugun gure gakoa arautzeko, gure hutsuena betetzeko.

Orduan, behar bada 49. artikulua emango digu erantzun normatiboa? 49. artikulua esaten du: edozein Europako estatuk eska dezake EB-ko kide bilakatzea.

Ez dugu galdetuko orain Europako estatu zein den, Europar Batasuneko kide berria bilakatzea suposatzen du europarra zarela. Bete behar diren baldintzetaz bai esaten du: Kopenhageko irizpide famatuak betetzen baditu, horien artean nagusiki Europar Batasuneko baloreak onartu, eta babestu, eta bultzatu egin behar dituela, eta gainera bere zuzenbidea egokitua eduki behar du zuzenbide komunitarioa aplikatu ahal izateko, merkatu ekonomi bat behar du, estatu zuzenbide bat izan behar du, eta hainbat irizpide.

Orduan, eskaera luzatzen dio Kontseiluari, Kontseiluak informatzen du Parlamentua eta estatuetako parlamentuak ere bai, Komisioari kontsulta egiten zaio, eta beharrezkoa da Europarlamentuaren onarpena kide berri bat hartzeko. Kontseiluan aho-batekotasuna behar da kide berri bat onartzeko, eta gero bere kide-tza akordioa estatu guztietan berretsi egin behar da ere bai.

Bueno, zein da honen problema, zergatik ez dugu ikusten artikulu hau analogiaz aplikatzea? Ba problema da kanpoan egon behar duela estatu hura, EB-tik kanpo dagoen estatu batek eskatzen du EB-n sartzeko. Beraz, ez da benetan aplikagarri, zeren ez dugu oraindik erabaki EB-ko estatukide batetik bereizten den erregioa kanpoan joan behar duenik. 49. artikulua den Xedapen honek aurrirakusten duen supuestua da hirugarren estatu batek, orain arte inoiz EB-ko kide izan ez dena, kide-tza nahi dela eta zer egin behar den kide-tza hori gauzatzeko: bere ordenamendu juridikoa egokitu, *acquis*, *acervo* edo ondarea egokitu, demokraziaren eta zuzenbidezko estatuaren ezaugarriak eta merkatu ekonomia dira bete behar diren baldintzak: nola hirugarren estatuak EBko kide ez diren baliteke baldintza horiek, Kopenhagengo (Kobenhavn) irizpideak, ez betezea eta horregatik hasten dira negoziaketa luzeak ziurtatzeko baldintza horiek, irizpide horiek benetan betetzen direla edo beteko direla eta komentzimendua lortzen denean baietz beteko direla orduan zabalkundeari ekingo zaio.

Baina gure kasuan banatzen den erregioa bada jadanik EBko kide eta baldintza horiek guztiak betetzen ditu, eta ez dago batere argi erregio hori EB-etik da dagoen, ez da kanporatua izan. Beraz analogia balizko egoera horretatik ateratzea eta soluzio berbera aplikatzea berdintasunaren printzipioaren aurka joango litzateke: desberdinak diren egoerak berdin tratatuko lirateke, eta gainera EBren interesen kontrakoa litzateke ordura arte kidea izan den herri bat kanporatzera behartzea: Batasuneko hiritarrak daude, euren eskubideak gabetzen direnak, enpresak daude merkatu bakarrean jarduten, transakzio ekonomikoak daude trabarik gabe egiten direnak, eta horri guztiari esaten zaio ezetz, desegin behar direla euren borondatearen kontra. Absurdoa dirudi.

Azkenik eta azkena, 50. artikulua dago: estatu batek EB-tik irten nahi duenean, eta hau Eskoziaren kasua ez da, baina hemen gertatzen dena da edozein estatuk erabaki zezakeela Europar Batasunetik irtetzea, horretarako bere barneko konstituzio prozedurak jarraituko ditu, hori erabakitzeko, notifikatu egiten zaio, jakinarazten zaio Kontseiluari, Europar Batasunak eta estatu horrek baldintzak negoziatzen dituzte, irteeraren baldintzak, bi urtetan negoziatzen dituzte, eta gero interesgarria da beste xedapen bat artikulu horretan kokatzen dena, bosgarrena hain zuzen ere, eta esaten duena: irtetzen denean eta gero etorkizunean berriz

sartu nahiko balu, berriz kidedu nahiko balu Europar Batasunean, orduan kidedzeko 49. artikulua jarraitu beharko luke. Orain ondo ezagutzen dugu xedapen hau Brexit dela eta. Aurrikusten duen egoera zera da estatukide batek EB-tik alde egitea erabakitzen badu, prozedura aurrikusten du irteera hori gauzatzeko. Abiapuntua ezinbestekoa da: EB-ri irtetzeko borondatea adieraztea. Artikulu honek aurrikusitako erantzunak ez digu balio, hainjustu estatukidetik banatzen den erregioak nahi duena ez da irtetzea, EB-n geratzea baizik. Baina artikulu honek balio digu 'a contrario' moduan: EB-tik irtetzeko interesatuak horrela adierazi beharra dauka, eta ezin zaio inolaz ere inposatu. Beraz ezin da erregio baten borondatearen aurka erregio hori kanporatu. Erregio edo estatukide batek arazoak sortzen baditu, ez baditu EB-a oinarritzen den printzipioak errespetatzen –demokrazia, giza eskubideak, leialtasuna, zuzenbidezko estatua eta botereen banaketa eta bereizketa, merkatu librea, etab– badago prozedura bat estatukide horri bere kidedzaren eskubideetaz gabetzeko EB Tratatuko 7. artikuluan dago, eta aukera nuklearra esaten zaio horri. Santzioak aurrikusten ditu, eta baita ere kontseiluko bileretan ezin parterik hartzea, baina ez du kanporatzerik aurrikusten. Garbi geratzen da Tratatuen arabera irtetzea borondatezko ekimena dela.

“Barneko zabalkundearen” kasuan sortzen den estatu berriak ez du irten nahi Europar Batasunetik, jarraitu nahi du kide izaten. Beraz, badirudi aurreikusen diren artikulu guztietatik bakarrik batek benetan, zalantzarik gabe, aplikatuko litzateke egoera honetara, eta da tratatuak aldatu beharko liratekeela edozein kasutan kide berriaren kidedza, nolabait ere, antolatzeko. Ondorioztatzen dugunez, analogiak ez digu gauza handirik konpontzen, beste nonbait bilatu beharko dugu buru-betekuntza edo auto-osaketa.

7. Nazioarteko zuzenbide publikoa eta Europar zuzenbidearen printzipio orokorrak

Nazioarteko zuzenbide publikoaren printzipioekin orekatu eta uztartu behar dira artikulua hauek, eta hor gauzak ez daude hain argi. Urrats hau oraindik buru-osaketa litzateke, ez garelako Europar Batasunaren sistema juridikotik ateratzen, zeren zuzenbide modernoetan nazioarteko zuzenbidearen printzipio orokorrak berezko sistema juridikoan bereganatzen eta aitortzen dira, berezkoak balira bezala. Nazioarteko zuzenbidean estatuen suzesioei buruz zer arautzen den interesatzen zaigu, adostua denean jakina. Hor eraginen jarraipena edo *continuity of effects* printzipioa da nagusi, eta horrela bada, status quo-aren aldeko apostua egiten da, ahalik eta eragin gutxiena izatea estatu berriaren sorrera: lehendik zeuden betebeharrak, zorrak, zamak, eta eskubideak, kreditoak, aitortzak, erantzukizunak eta pribilegioak, denak ahal den neurrian bi estatuen artean banatu eta zatitu, bakoitzari dagokion neurrian.

Hortik aurrera nazioarteko zuzenbideak zera aurrikusten duen, nazioarteko erakundearen estatutuek edo Tratatuek diotenari egotea. Eta badakigu EB-ko Tratatuek ez diotela deus. Beraz, ikusi egin behar aurrekaririk dagoen edo beste tres-

nak erabili behar ditugun. Lehen lehenik esan dezagun Europar Batasunarekin ez dagoela inolako prezedenterik, Eskoziarena ez denez gertatu, ba ez dago beste kasurik, nolabait ikusteko nola konpondu den gai hau. Gauzatu izan balitz, hilabete hauetan gauzatuta egongo litzateke negoziazioa, eta estatu jaraunslea (*successor state*) rUK deitzen dena (rest of the UK) ala biak (rUK eta Scotland) izango zen. Algeria ez zen europarra eta Komunitateak 1962an ez ziren asko garatu, trantsiziozko epeetan zeuden atal gehienetan. Groenlandiak Europar Komunitateetatik alde egin zuen bere borondatez, eta Danimarkak jarraitu zuen arduraren hartzen. Saarland Frantziatik Alemaniara libreki pasatzea erabaki zuen baina orduan Altxairu eta Ikatzaren Komunitate Europarra zegoen, sortu berria, eta ardurak Alemaniari hartu zituen. Ekialdeko Alemania, lehengo DDR, hori Alemaniarekin batu zen eta automatikoki satu zen Europar Komunitateetan 1990an. Txekoslovakia zena erdibitu egin zen Europar Batasunean sartu baino lehen eta biak sartu ziren, bakoitza bere aldetik. Orain arte ez da gertatu EB-ko estatukide baten erregio batek estatu berri bat sortzea.

Buru-osaketaren azkeneko saiakera printzipio orokorretan inspirazioa bilatzea izango da, EB Tratatuaren Printzipio Orokorretan hain zuzen ere. Europar Batasunaren oinarritzko printzipioak eta baloreak aipatu ditugu jadanik: Tratatuaren hasierako atalean topatzen ditugu, 1, 2, 3, 4, 5, 6 artikuluetan, horien artean demokraziaren printzipioa nagusi delarik. Horietaz jardun gara orain arte: Adostutako prozeduretzat eta zuzenbidezko estatuaz, giza eskubideen errespetuaz, gutxiengoen barne, konstituzio-identitatea errespetatzeaz. Balore garrantzitsuak dira: herriaren borondatea, interdependentzia, batasunaren helburuak, askatasuna, elkartasuna, bakea,...

Testuan zehar ikusi dugun bezala Europar Batasunaren printzipioek gida eta laguntza ematen digute "barneko zabalkuntza"ren aldeko erantzun bat topatzeko, estatukide eta autodeterminatzen den erregioaren artean adostua denean. Beraz esan daiteke EB-ko sistema juridikotik irten gabe xedapen gabezia horri erantzun egoki bat aurkitu daitekeela, barneko zabalkundearen alde. Jakina praktikan jartzeari oso prozesu konplikatuak izango zen, atalez atal negoziatzen joan beharko litzatekelako estatukide berriaren eta banatu berri den estatukide zaharraren arteko eskubide eta obligazioen zatiketa zehatza, eta erakundeetan bakoitzak bere aldetik izango zuen ordezkartza zehatza, eta akordio horiek gainontzeko estatukideek ontzat eman beharko litzateke. Baina alternatiba. Alegia banandu den estatu berria EB-tik irtetzera behartzea ez da inorentzako egoki edo desiragarri, zeren berdin birnegoziatu beharko litzateke eskubide eta obligazioen banaketa eta erakundearen ordezkartza maila bai estatukide zaharrarekin. Europaren konstituzio funtzionalak edo pragmatismoak jarraipenaren aldeko apostua egitea ekarriko luke azken finean. Ez litzateke bakarrik pragmatismoak bultzatutako erantzuna, EB-ren funtsek, baloreek, printzipio orokorrek ere soluzio berbera iradokitzen dute.

8. Kanpo osaketa, argudio politikoak eta Europar Batasunaren funtsa

Baina, Tratatuaren balizko hutsune juridikoaren osaketari begira argumentu gehiago bilatu nahiko balira jarraitu beharko genuke kanpo-osaketarekin, alegia beste zuzenbideetan dauden soluzioak, edo zuzenbidearen ez diren beste sistema araukorretan, arrazoi praktikoan. Pragmatismoaz aritu garenean arrazoi praktikoren izarian ari ginen, baina argi dago tratatuetatik haratago, zuzenbide positibotik haratago joan beharko dela. Horretarako begira dezakegu baita ere Europar Batasunaren beraren zentzuan, zertarako dagoen Europar Batasuna. Eta gakoa hemen dago: zer nolako proiektua den eta izan behar duen Europar Batasunarena? Zertarako sortu zen? Alegia, arrazoi praktikoren munduan edo eremuan kokatuko gara, filosofia politikaren munduan.

Argudio politikoak eta argudio horien interpretazioak, edo arauen interpretazioak egin beharko dira. Eta, funtsean, galdetu beharko dugu benetan zein den interesa Europar Batasunean, zein den funtsa, zertaz den Europar Batasuna? Ezen, hemen, alde egoteko argumentu batzuk ematen dira, esaten da Europar Batasuna oso flexiblea dela, gai izango dela kide berriak modu solidarioan ekartzeko eta elkartzeko, nolabait lehen aipatu dugun eraginen jarraipena bermatuko duela. Europa borondatezko proiektu bat dela, ez inposaketarena. Malgutasuna beti izan dela arazoei heltzeko modua eta ezdagoela inoren interesean Kobenhagen irizpidea, zuzenbide, ekonomia eta politikaren irizpideak, erabat betetzen dituen herri bat irten araztea. Bestaldetik, “barneko zabalkundearen” kontrako argumentuetan esan ohi da: beste estatuak inoiz ez dute onartuko barneko zabalkundea; estatuak, nolabait, lurraldekotasun, integritateak, nolabait, eragozten duela sistema edo formula hau; status quo babestu egin behar dela... Baina ez dutena esaten da banaketa adostutako prozeduren ondorioa dela, estatukidearen legezko prozedurak jarraitu direla status quo-a aldatu ahal izateko, eta lurralde osotasunaren mugak aldatu ahal izateko.

Beste kontrako argumentu bat, batzutan ematen dena da ez dagoela lekurik, beteta dagoela EB. EB-k galdu duela kide berriak hartzeko gaitasuna, *absorption capacity*, edo *capacidad de absorción*, alegia, saturatuta dagoela. Baina Kroazia sartzeko edo hartzeko gaitasun hori ez da oztoporik izan. Islandiak eskatuko balu berriz negoziazio atalak zabaltzeari, ez litzatekela oztopo izango.

Azkenik, beste kontrako argumentu bat eskeintzen dena da, ezin dela barneko zabalkundea onartu zeren bestela deiadar eragina izango zuela, *efecto llamada*, *call effect*, beste antzeko erregioek ere nahiko luketela antzeko formula bilatu. Argumentu hau eraginkorra da oso eta behar bada argumentu bakarra da barneko zabalkundearen kontra. Estatukide batzuren interesa dago oztopoak jar-tzeaz. Espainia da kasurik argiena.

Argumentu honen aurrean berriz galdetu beharko genuke zein izan beharko litzatekeen Europar Batasun baten funtsa. Azken finean, Europar Batasuna baldin bada, eta orain azpimarratzen dugu, baldin bada, “gero eta batasun estuagoa Europako herrien artean”, badirudi 2016. martxoko Europar Kontseiluko bileran

adostu dutena EB-ren funtsa bera kolokan jartzen duela. Ez da izan Europar Kontseiluaren erabaki bat, baizik eta estatu eta gobernuetako buruek Kontseiluan bilduta hartutako erabaki bat, eta guztiz juridikoki desberdina da ez duelako EB-a lotzen, estatukideetako bakoitza lotzen du nazioarteko tratatu balitz bezala. Baina kolokan jarri du orain arteko EB-ren azken fineko helburua, gero batasuna estuagoa, edo onartu egin du Erresuma Batuentzat gero eta batasun estuagoaren printzipio hori ez dela benetan serioa, eta Erresuma Batuak nahi badu, muzin egin diezaioke, *a la carta* erabili dezakeela eta berak, Erresuma Batuak erabakiko du zer nolako ondorio politikoa eman horri, baina funtsezko printzipio horrekin ez dela lotuta sentitzen.

Horregatik esaten dut “baldin bada”, zeren orain jada ez dakigu nola garrantuko den funtsezko printzipio hau. Brexit-aren aldeko jarrera nagusitu denez, estatu edota gobernuburuaren arteko akordioak baliozkotasuna galdu du, horrela aurrikusita zegoen. Baina Europar Batasunaren funtsa baldin bada estatu guztien arteko batasuna, ez estatu guztien artean bakarrik baina estatuak gehi hiritarrak, gehi baita ere herriak, horrelako batasun bat baldin bada funtsa eta helburu, nekez ulertuko dugu estatu horiek nola erabaki dezaketen “eskoziar” hutsune bat sortzea Europar Batasunean, non derrepentean, ez den aplikatuko Europar Batasuna beraren interesa. Europar Batasuna beraren interesa da merkatu amankomun bat edukitzea, barneko merkatua, mugimendu librearen faktore guztien artean, mugen desagertzea... eta hori ahalik eta europar herri gehienaren artean, eta horretarako euren zuzenbidea, ekonomia eta politika egokitu beharko dute ekonomia batasun hori gauzatu dadin.

Hori da Europar Batasunaren interesa. Interes horren aurka modu argian jango litzateke sezesioa aukeratzen duen erregio nazio baten EB-n geratzeko aukera ez erraztea. Eta nola egin dezaket estatu kideek eta Europar Batasuneko erakundeek interes horren aurka? Ez bada errazten sezesioa aukeratzen duen erregioaren EB-ko kideak, orduan benetan oztopatzen ari dena da Europar Batasun beraren funtsa, eta estatu kideek badaukate obligazioa, hain zuzen ere, lehen aipatu den leialtasun federala, *bundestreue*, lealtad federal, federal loyalty, hori ere Europar Batasunean aplikatzen da, laugarren artikuluan garbi jasotzen dena, estatu guztiek egin behar dute ahal duten guztia Europar Batasuneko funtsak eta helburuak, hain zuzen ere, betearazteko, eta egia izan daitezkeen.

Ikusi dugunez argumentu juridikoak badira zentzu guztietan, baina funtsa zein da? Funtsa izan daiteke pragmatismoa, alde batetik, eta funtsa izan daiteke, hain zuzen ere, erraztea Europar Batasunaren helburu horiek lortzea.

Arrazoi praktikoarekin jarraituz eta ikuspegi horretatik inspiratuta galdetu daiteke zergatik eduki behar duen estatu kide baten zati batek, erregio-nazio batek, zergatik eduki behar duen ateratzeko gogoa, edo estatu berri bat sortzeko gogoa? Hori ere ez al doa pixka bat Europar Batasunak suposatzen duen interdependetzia funtzioanala edo gero eta batasun estuagoaren finalitate horren aurka? Alegia, Europar Batasuna gero eta batasun handiagoa baldin bada estatuen artean, herrien artean eta hiritarren artean, estatu berri bat sortzeak ez al dio nolabait ere kontra egiten helburu nagusi horri? Hemen kontua, eta gure funtsa baldin bada

denon arteko batasuna egitea, zergatik nahi dugu orain beste estatu berri bat sortu? Izan daiteke argumentu bat, nik uste dut, ez maila juridikoan, maila praktikokoan, edo arlo politikoan ere, argumentu horri erantzun egin behar diogu, eta benetan kontsideratu behar dugu zer dagoen Europar Batasunaren interesean.

Eta beraz, zati hau bukatuko nuke, Stefan Fülle, aurreko europar Komisioko zabalkundearen komisarioaren aipamen batekin, 2004ko ekialderako zabalkundearen hamargarren urteurrenean Komisioak emandako adierazpen ofizialetik hartuta: “zabalkundea dago Europaren ADNan, berez da Europar Batasuneko politika funtsezko bat. Beharbada eraldaketarako tresnarik inportanteena da, eta baita ere segurtasuna eta bakea lortzeko daukagun tresnarik boteretsuarena. Gaur egun, Europa batu batean hobeto aurre egin diezaiokegu, hain zuzen ere, globalizazioaren erronkei, edo krisi ekonomiko eta finantzarioari, edo aldaketa klimatikoari batura baldin bagaude”².

Eta orduan, hori dena egia baldin bada galdera da: eta zer zentzu izango luke eta noren interesean litzateke orain arte barruan egon den kidea, kideztarako baldintza guztiak betetzen dituen kidea, kide izaten jarraitu nahi duen kidea ez onartzea?

9. Brexit-aren eragina

Sarreran esan dugunez, amaierazko hitzak egoera berria jorratzeko dira. Dakigun bezala, 2016.ko ekainaren 23an erreferenduma izan da Erresuma Batuan. Erresuma Batuko bozen %52k orokorrean EB-tik alde egiteko postura egin du. EB-tik alde egiteko edo Brexit-en aldeko emaitza nabaria izan da Ingalaterran eta Galesen, baina aldiz, bai Eskozian, bai Ipar Irlandan eta baita Gibraltarren ere EB-an geratzeko apostua izan da nagusi. Eskoziaren kasuan honek suposa dezake bere gogoaren eta borondatearen kontra EB-tik atera daitekela. Galdera asko airean daude hone honetan, erantzunik gabe: nork hartuko du irtetzeko erabakia, gobernua bakarrik ala parlamentuak ere bai? Zer aukera negoziatuko dute Eskoziarentzat, derrigorrezko irteera ala geratzeko aukera? Nola inplikatu dira Eskozia eta Ipar Irlanda negoziaketetan? Emaitza honek ankazgora jarri du bameko zabalkundearen gakoa³. Gogora dezagun Eskoziar Independence Referendum kanpainian zer argumentu nagusia ematen zuten independentziaren aurkakoei, alegia Eskoziaren kideztza Europar Batasunean bakar-bakarrik berma zitekeela Erresuma Batuan geratuko balitz, zeren irtengo balitz ziuraski EB-tik ere irten beharko zuen. Jakina hau ez zen izan kanpainiako argumentu bakarra eta behar bada ezta nagusia ere, txanponaren eta ekonomiaren galdera ere punta-puntakoak izan baiziren, baina Europar Batasuneko kideztzarena funtsezko gakoa izan zen. Eta orain, Erresuma Batuan geratzeko erabaki horrek suposa dezake EB-tik irten beharra, gehiengoaren gogoaren aurka.

2. http://europa.eu/rapid/press-release_STATEMENT-14-143_en.htm

3. Gako hauek beste leku batean jorratu ditut, alegia *Actualidad Aranzadi de la UE*, 2016-ko azaroa (moldiztegi)

Baldintza horietan ezin da baztertu Eskoziar parlamentuak beste *independence referendum II* deitzea. Zailtasun konstituzionalak egon daitezke honen inguruan erreferenduma Erresuma Batuko gobernuarekin adosten ez bada jakina, baina adostuko balitz ezingo genuke baztertu oraingo honetan bai independen-tziak irabaztea eta beraz EB-eko kidetza eskuratzea, edo nazioarteko zuzenbidea-ren ikuspegitik *successor state* edo estatu jaraunslea Eskozia izatea eta ez Ingalterra. Jakina honek ere zailtasunak sor ditzazke Ipar Irlandaren kasuan, baina behar bada hango gehiengo batek aukera dezake Irlandaren batzea eta horrela bere EB-ko kidetza konponduta geratuko litzateke, baina oraingoz planteamendu hauek fikzio-politikarenak dira.

Beraz, horrekin, nire mintzaldia amaitu dut, eskerrik asko.